

eraikikasi

eraikikasi

1. erraztu

2. elkarlanean aritu

3. ez baztertu

4. demokrazian sakondu

eraikikasi

demokrazian sakondu

web orriaren helbide berria

www.elkarri.org

elkarri lagundu

nahi badiozu, ondorengo bide hauek erabil ditzakezu



•elkarriren dirulaguntzailea izan nahi dut (14 kuota urtean)

Diru-laguntzaile guztiek dohainik jasoko dituzte elkarri eta elkarrikasi aldizkariak

1.500 pta.

2.000 pta.

5.000 pta.

10.000 pta.

•Aportazio bakarra egin nahi dut

10.000 pta.

25.000 pta.

50.000 pta.

100.000 pta.

..... pta.

•elkarriren ekimenetan lagundu nahiko nuke

bai

•Nire etxean jaso nahi ditut elkarri eta elkarrikasi aldizkariak

4.000 pta.
(urteko kuota)

1.000 pta.
(hiruhilabeteko kuota)

izen-abizenak _____ N.A. _____ tfnoa. _____

helbidea _____ herria _____

herrialdea _____ kode postala _____

banku edo aurrezki kutxa _____

kontu zenbakia(20 digito)

gipuzkoa
madril etorbidea, 5
20011 donostia
tf. 943 45 93 75 fax. 943 45 07 58
e-mail: gipuzkoa@elkarri.org

navarroa
tutera kalea, 18 - 2. G
31003 iruñá
tf. 948 24 84 00 fax. 948 24 92 88
e-mail: nafarroa@elkarri.org

araba
estibalitz etorbidea 2 - 1. - 5. bulegoa
01003 gasteiz
tf. 945 25 61 76 fax. 945 28 00 97
e-mail: araba@elkarri.org

bizkaia
arenal, 5 - SVRNE 209. bulegoa
48005 bilbo
tf. 94 479 03 16 fax. 94 415 80 03
e-mail: bizkaia@elkarri.org

aurkezpena

Aldizkari hau bake-prozesuaren gakoetan —«erraztu», «elkarlanean aritu», «ez batertu» eta «demokrazian sakondu»— hausnarketa bideak bultzatu nahi izan duen bildumaren laugarren alea da. Ale bakoitzak gure bake-prozesua bultzatzeko eta bertan parte hartzeko edukiak eta iradokizunak eskaintzen ditu. 40.000 pertsona, elkarte eta erakundeen buzoietara heltzen da, elkarriren lan-eremu nagusienetakoa den adiskidetze-kutura landu asmoz.

Ekimen honek izan duen harrera-gatik, elkarririk bigarren saila martxan jartzea erabaki du honako gaiak jorratzeko asmoz: «biktimak bake-prozesuan», «espetze-politika eta humanizazioa» eta «gizartearen partehartzea bake-prozesuan». Koaderno hauek hiruhilabetero kaleratuko dira, martxotik aurrera. Irakurleak bereziki interesatzen zaion gairen bat izango balu, barruan doan orrian adieraz dezake. Eskaera gehien lortzen dituzten gaiak argitalpen monografikoa izango dute.

Laugarren argitalpen honen sarrera eta aurreko hiruen laburpen gisa, ondorengo ideiak azpimarratu nahiko genituzke:

- ▶▶ •Bake-prozesua elkarrizketa eta distentsiorako unea da. Eta une horretan, hain zuzen ere, gatazkaren giltzarri izan diren arazoak konpontzeko bi elementu sortu, gertatu eta garatzen dira aldi berean: a) distentsio, indarkeriarik eza eta humanizazio unea, eta b) indar politikoen arteko elkarrizketa. *Eraztea* adiskidetzearen kultura bultzatzea da.
- ▶▶ •Bake-prozesu batek oinarrizko akordioak lortzeko giro aproposa behar du. *Elkarlanean aritzea* akordio horiek lortzeko beharrezkoa den jarrera da. Elkarlanean aritzea «helburu bat bera lortzeko beste norbaitekin edo norbaitzuekin jardutea da». Jarrera kontrajarrien arteko bat etortzeak atzematea eta azpimarratzea dakar.
- ▶▶ •Bake-prozesu batek distentsioaz, elkarrizketaz eta lankidetzaz gain, ez *batertu* irizpidea aplikatzea eskatzen du. Sentsibillitate guztiak parte hartzen laguntzea edo integratzea esan nahi du. Bat dator gure herriak aniztasuna aitortzeko duen gaitasunarekin. Prozesuak elkarrizketa prozesua behar du izan baina baita ere eta batez ere entzuketa behar du. Irizpide hau aplikatzeko modurik unibertsalena eta garbiena alderdi politiko guztien foroa edo mahaia (edo mahaia) sortzea da.



bake proz

zer esan nahi du «demokrazian sakondu»

1. Lehenengo printzipioa

Demokrazia gehiengoaren borondatearen errespetuan oinarritutako elkarbizitza soziopolitikorako printzipioen eta prozeduren multzo bat da. Jatorriz «herriaren gobernu» esan nahi du. Demokraziak, helburu edo proiektu politikoei dagokienez, ez ditu mugak ezartzen giza eskubideak errespetatzen baldin badira eta herritarren atxikimendu askearen bidez bilatzen badira, hau da, inposaketarik eta mugarik gabe. Gakoa hauxe da: herri borondatea, legitimoki adierazia, une bakoitzean ordenamendu juridiko eta instituzionalean bere islada izan dezala.

2. Indarkeria eta gatazka

Indarkeria tresna politiko gisa demokraziarekin bateraezina da. Gatazka, aldiz, ohikoa da: desadostasun soziopolitiko sakonak adierazten ditu. Kezkagarria ez da gatazka existitzea hauek konfrontazio bortitzean eratoritzea baizik. Hain zuzen ere, demokraziak gatazka sozial eta politikoak modu positibo, eraikitzaile eta baketsu batean erabakitzeko marko orokor bat eskaintzen du.

3. Etengabeko hobekuntza

Sistema demokratikoak dinamikoa izan behar du, une bakoitzean, herri borondateari egokitzeko. Etengabeko hobekuntza behar du. Horrek bere instituzioen, lege eta ohituren berrikuspen (eta agian erreforma) elkarrizketatu eta adostuan oinarritutako aldizkako ariketa bat eskatzen du denboraren frogara eta krisiak gaindi ditzan. Tentsio dialektiko osasuntsu honek demokrazia perfektionatu egiten du eta gatazken aurrean prebentiboa da eta sendagarria, hau agerian jartzen den kasuetan.

4. Elkargunea

Gure herrian gertatzen den bezala, subiranotasuna eta lurraldetasuna baldin badira eztabaida eta blokeo arrazoia, elkargunea eta aurrera egiteko formula bide demokratikoetan sakontzen eta hauek aztertzen aurki daitezke. Aukera eta helburu guztientzat igaranbidea demokraziaren baitan arazoei konponbide berriak aztertzea izan daiteke. Normalean demokrazia gehiagok bake sozial, juridiko eta politiko gehiago esan nahi du.

5. Aniztasuna eta denak barnean hartzea

Euskal gizartea proiektu nazional edo estatalari buruz zatiketa sakona duelako eta bake eta normalizazio prozesu baten hasieran aurkitzen delako bereizten da. Ikuspegi honetatik, demokrazian sakontzeak elkarbizitza markoa egokitzea esan nahi du, honetan sektore sozial eta politiko guztiak parte har dezaten eta desberdintasunetik eta gehiengo eta gutxiengoan lankidetzatik elkarbizitza ahalbidetu dadin.



esuari buruzko hamar eduki

hamar eduki

«demokrazian sakontzeak» zer dakarren berarekin

6. Prozedura adostetik hasi

Hasieran produktiboagoa izan ohi da elkarrizketa metodoa edo abiapuntua adosten arreta jartzea, azken emaitzen eta helmugetan arreta jartzea baino. Beste prozesuetako esperientziak, inor baztertuko ez duen ordezkari politikoen arteko elkarrizketa-foro bat eratzea gonbidatzen du. Modu askotan eratu ahal izango da, egungo instituzioen barruan, kanpoan edo parean. Mahai pare bat izan ditzake —komunikatuak eta koordinatuak—, EAEn eta Nafarroan esate baterako. Prozedura eta agenda partehartzaile guztien artean adostuak izatea da garrantzitsua.

7. Prozesu-mentalitatea

Demokrazian, aldaketak gizartearen partehartzearen eta aportazioen eraginpean daude. Berrikuntzen zentzua eta erabilgarritasuna sektore desberdinek bere egiten dituzten baitan dago arrakasta. Eraldakuntza sozialak, milaka lagunengan eragina duelako, denbora behar dute ezarri eta denon artean konpartitzeko. Hau ez da luza-penerako aitzakia, errealismoari eta hiritar-heldutasunari apelazioa baizik. Parálisisa eta inmovilismoa bezain kaltegarriak dira inprobisatzea eta arinegi joatea. Prozesu sozial demokratikoak herritar guztien eboluzio eta heldutasunarekin bat egin behar dute.

8. Erabaki-subjektua

Balore demokratikoen lehentasuna oso zabaldua dago. Arazoa funtzionamendu demokratikoaren hizki txikia zehaztean datza. Esate baterako, elkarrik honako baieztapen hau konpartitzen du: Euskal Herriak bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea du. Hala ere, euskal gizartea, Espainiakoa, nafarra eta Europakoa zein neurritan eta nola diren subiranoak mugatzea da erronka, interdependentzia testuinguru batean. Horregatik da beharrezkoa erabaki-subjektua eta esparrua adostea. Nork erabakitzen duen, zertaz eta nola zehatz mehatz finkatzea. Hau da gure herrian normalizazio politikorako konpondu gabeko arazoa: guztiok onartutako joko politikoen oinarritzko arauak adostu.

9. Gizarteari eman hitza

Tradizio demokratikoa duten gizarteetan berezkoa da, komunitatearentzat garrantzi handiko gaietan, elkarrizketa politikoen emaitzak eta akordioak herriari kontsultatzea. Gurea bezalako demokrazia representatiboaren funtzionamendua hobetzean datza, horretarako oinarritzko gauzetan gizartearen partehartzea bultzatuz. Honek esan nahi du lehen printzipio demokratikoa aplikatzea («herriaren gobernua») eta, honela, akordio eta erabaki instituzionalen legitimitatea indartzea. Gure kasuan, egungo statusa aldatuko lukeen edozein balizko akordioak prozedura hau jarraitu beharko luke. Are gehiago, paktuaren bidez, herriari kontsultatzeke ahalmena erabakitzean eta arautzean egon daiteke euskal gatazka gainditzeko gakoa.

10. Etengabeko negoziazioa

Demokrazian desiragarria eta errealista etengabeko negoziazio ohitura praktikatzea da, behar eta bertute bezala. Elkarrizketan, ordezkari politiko bakoitzak bere posizioaren bermea boto edota babes sozialetik jasotzen du. Posizioen arteko kontrastetik eta bakoitzaren indarretik lortzen dira akordioak eta aldaketa aurreikuspenak. Sistematikoki, behin eta berriz. Demokraziaren beste aurpegia posizioen erlatibitatea da, egi biribilen gabezia, dinamismoa eta jariakortasuna. Bidea gehiengoak osatzea da. Muga bakarra dago. Azkenean, azken hitza eta erabakia subiranoak dauka: herriak. ◀

adibide batzuk

Gatazka politikoak —bortitzak zein bortitzak izan ez direnak— eraldatzeko demokrazian sakondu duten adibide asko daude. Zatiketa handiak dituzten gizarteetan oinarrituz gero, ondorengoak aipatuko genituzke:

1. Ipar Irlanda. Belfast-en Stormont-eko Jauregian bildutako ordezkarien artean izandako bederatzi hilabetetako elkarrizketa-prozesuaren ondoren, Erresuma Batuan eta Irlandan aldaketa konstituzionalak egitea adosten da eta prozesua herri kontsultaren bidez berretsi. Akordioen muina erakunde berriak sortzea izan da: batzuk gobernu autonomoa edukitzeko konpetentzia arautuekin eta besteak Irlandako iparraldea eta hegoaldearen arteko eta irlen arteko harremana eta lankidetzak bultzatzeko. Prozedura elkarrizketa, akordioa eta herri-konsulta izan dira. Printzipio klabea elkarbizitza-markoa hobetzea da tradizio eta helburu politiko guztiak kontuan hartuak izan daitezten.

2. Quebec. Quebec-eko subiranotasunaren eztabaida herrialde hau eta Canada-ko Estatuaren arteko harreman proiektu zehatza herriari kontsultatuz bideratu nahi izan da. Emaitzak bi aldeek aurrez onartzen dituzte. Herri-ereduaren (gatazkaren) eztabaidak luze irauten du baina eraldakuntza eta erabakitze metodoa adostu egiten dira. Horrez gainera, gehiengo garbirik ezear, negoziazioak jarraitu egiten du ondorengo kontsulten baldintzak zehazteko. Prozedura negoziatio demokratikoa da eta azkenik populazioari hitza ematea, zuzenean kontsultatuz. Printzipio motibatzailea subiranotasun markoa gehiengoaren borondateari atxikitzea da.

bakarka zein taldeka gogoeta egiteko gidoia

Eduki teoriko horiek sakondu nahi dituenak behean du gai honi buruzko hausnarketa egiteko edo talde lana pixka bat antolatzeke gidoi orientagarri bat.

- Orain arte irakurri dituzun ideia guztietatik, zein gogoratzen duzu ongien edota zein izan da zure ustez interesgarriena? Talde lanean lehen inpresio hori elkartruka daiteke eta zergatia esplikatzan saiatu.

- Zuk demokraziaz duzun ideia eta orain arte irakurri duzuna desberdinak al dira? Zertan desberdintzen dira? Zure iritziz zure gizartearen demokrazian sakontzen lagunduko luketen hiru iradokizun adieraz itzazu. Zure taldearen funtzionamendu demokratikoa hobetzeko hiru ideia eman itzazu baita ere.

- Egungo egoera hobetu eta zure inguruan sortzen diren gatazkak eraldatzeko bide, baliabide edo prozeduren bat iradoki ezazu. Gehien interesatzen zaizkizun gatazka politikoekin gauza bera egin ezazu.

- Gatazkak prebenitzeko zure ohiturak, harremanak eta akordioak berrikusten al dituzu aldiro? Behin gatazka bat esistitzen denean, nola konpontzen edo hobetzen duzu egoera? Konponbidean bestearen ikuspegiak eta interesak txertatzen saiatzen al zara?

- Ordezkeri politikoen mahai baten simulazio bat egin ezazue Euskal Herrian bakerako elkarrizketari ekiteko. Indar politiko guztien ordezkari izendatu ondoren, lehen bilerarako lan-prozedura adosten saiatu. Ondoren, gai-agenda eta lan-egutegi adosten saiatu.

